
Gaiaren Laburpena

Antropologiarako Sarrera II

Gorka Jimeno Larrea

Bizimoduak

Gai honetan gizakiak planetan zehar daukaten bizimoduei buruz jardun genuen. Izan ere munduan 6000-7000 ingura kultura eta sinesmen ezberdin daude. Horrek zerikusia dauka gizakiaren arrakastarekin, munduan leku oso gutxi daude non gizakia ez du oina jarri. Aniztasun hori gizarteak osatzeko modu ezberdinak ematen ditu. Gizarte batzuk besteak baino konplexuagoak izan ahal dira zentzu askotan, erlijiosoan, politikoan, administratiboan... eta abar.

Hasiera batean homo sapiensak modu nomada batean bizi ziren. Lehenengo talde horiek ehiztari-biltzaileak ziren eta harrapakinen bila sakabanatu egin ziren. Milaka urtetan bizimodua ez zen asko aldatu, bakarrik inguruneagatik zegoen kondizionatuta. Baina Neolitikoan iraultza bat gertatu zen, nomadismotik sedentarismora pasatu zen eta biltzetik ekoiztera.

Iraultza hori momentu ezberdinetan gertatu zen munduko toki ezberdinetan. Lehenbizi hilgora emankorrean gertatu zen (horrela deituta bere forma geografikoagatik) Mesopotamia, Asiria, Elam, Siria, Egipton eta inguruko lurraldetan. Horregatik zibilizazioaren sorlekua deitua izan da. Bertan gizakiak harriekin lanabes sofistikuagoak garatzen hasi ziren. Ingurune pribilegiatua zen iraultza gertatzeko, espezie ugari etxekotzeko eta izena dion bezala emankorra ibaien eraginagatik. Lehenengo gizaki metaketa garrantzitsua gertatu zen hiriak eta herrixkak sortuz.

Apur bat beranduago prozesu antzekoak gertatu ziren beste bi tokitan. Gaur egungo Indian Ganges eta Indo ibaien inguruan eta gaur egungo Txinan ibai Oriaren eta Yangtze inguruan. Foko horietatik hasita beste lekutara zabaldu zen. Pazifikoko zenbait irletan migrazioekin batera zabaldu zen. Baina leku batzuetan, Australian adibidez, prozesua hasieretan geratu zen.

Zertxobait beranduago eta era nahiko autonomoan Amerikan, Mesoamerika eta Ande inguruetan iraultza prozesua gertatu zen. Leku batzuen eta besteen denbora ezberdintasuna kontinenteen geografiagatik gertatu zen. Eurasiaren horizontaltasuna transmisioa errazten zuen gainera espezie aproposenak zituen. Aldiz Afrika eta Amerika bertikaltasuna klima eta espezie ezberdinekin transmisio hori eragozten zuen. Zer esanik ez transmisioari buruz Ozeanian non itsasoa horrelako jarduera guztiak oztopatzen dituen.

Behin iraultza neolitikoaren prozesuan murgilduta gizarteak zirkulu biziotsu batean sartzen ziren. Baliabide gehiago lortzeko banako gehiago behar ziren, banako horiek elikatzeko ekoizpen gehiago behar dute eta ekoizpen gehiago lortzeko teknologia berriak garatu behar dira. Horregatik teoria determinista batzuen arabera baliabide bilaketa eragiten du gizartearen aurrerapena dinamika amaitezin batean.

Europarrek horretaz aparte beste dinamika batean sartu ziren. Kapitalismoaren dinamiketan. Izan ere XVI mendean sortutako eliza protestanteen eskutik etika berri bat agertu zen. Eliza Katolikoaren aldetik merkataritza eta lukurreriarekin zer ikusirik zeukan oro ez zegoen ondo ikusita. Aldiz eliza protestante berriek bereziki kalbinistek uste zuten ez zela beharrezkoa zerura itxotea hobeto bizitzeko. Ondorioz herri protestanteetan merkataritza izugarriko garapena izan zuen, kapitalismo primitiboa finduz.

Kapitalismoa dena merkantzia bihurtzen du. Ekoizle eta erosleen arteko dinamikak gehiago ezberdintzen dira, ondorioz espazio zentralak eta periferiak sortzen dira.

Kapitalismoaren eraginez lurralde berriak topatu nahi ziren bere baliabideak ustiatzeko. Gainera mundu zaharrean zegoen gain populazioa baretzeko koloniak osatu ziren. Ondorioz Europa bere agintea ezarri zuen munduan zehar faktore zehatz batzuen eraginagatik. Horrela ikusi ahal dugu ingurunearen garrantzia.

Senidetasuna antropologiaren tradizioan

Ahaidetasuna oinarrizko gizarte zelula denez aztergai garrantzitsua izan da antropologia klasikoan. Ahaidetasuna gizakien arteko lotura sinbolikoa da. Beste primateak laster hausten dituzte loturak. Haatik gizakiek sinboloen bitartez lotura iraunkorrak sortzen dituzte, ahaide sare baten barruan jaiotzen gara.

Filiazioa, afinitatea eta aliantzak edo ezkontzak dira lotzen gaituztenak. Sareak ezberdinak dira kulturen arabera eta horregatik terminologia ezberdina erabiltzerakoan itzulpenak txarrak izan ahal dira. Gainera ahaidetasuna erregulatzeko modu oso ezberdinak daude. Esan beharra dago gizarte poligamo gehiago daude monogamo baino.

Familia da ahaideak biltzen dituen unitatea. Kulturaren eta une historikoaren arabera familiaren osaera eta ulertzeko modua aldatu egin da. Mendebaldean hasieran aitak jartzen zion abizena familia osoari. Hura baizen familia mantentzen zuena eta kanpo harremanetaz arduratzen zena. Ama bestalde ugaltzeaz eta etxea eramateaz arduratzen zen. Gainera hasieran familia zabalagoa zen kide askok osatzen zuten. Gaur egun hainbat faktoreengatik familien tamaina murriztu egin da.

Normalean banakoek bi familia mota daukate. Alde batetik sozializazio familia dago, jaiotzen garen familia osatzen du handik beste banakoekin sozializatu ahal dugu. Bestalde sortze familia dago norberak ugaltzeko sortzen duen familia. Familia osatzeko ere faktoreak agertzen dira, gizarte beraren kondizioak, lotzeko erraztasuna, exogamia...

Baina badago kultura guztietan errepikatzen den ezaugarri bat. Intzestuaren kasua gaitzestea beti errepikatzen da. Badaude salbuespenak non praktika hori onartzen den, adibidez errege edo nobleen familien barruan. Naiz eta kasten kasua leku batzuetan eman, horiek ere era batera edo bestera familiatik at geratzea bilatzen dute. Kasu horiek dena den gutxiengoak dira eta populazioaren zatirik handiengan onartzen ez den praktika da.

Arrazoiak anitzak dira. Alde batetik Levi-Straussek uste zuen tabu hori exogamia bultzatzeko metodo bat zela. Horrela aliantzak osatu ahal ziren tribu ezberdinak familiaren sarean sartuz.

Beste antropologo batek Malinowskik zioen berez nazka diogula gure familiako kideekin harreman sexualak edukitzea. Bestalde badaude arrazoi biologikoak batzuen ustez intzestua galarazten dutenak. Berez odol berbera nahastea higuina ematen digula. Badakigulako instintiboki nahasketaren ondorioz ateratzen diren semeak akatsak dituztela. Baina teoria horiek nahiko ahulak dira.

Gaur egun ezkontzea edo familia osatzea kontratu baten antzekoa da. Betebehar eta abantaila batzuk ekartzen ditu. Harreman sexual monopolizatu bat sortzen da, ondorengotza guraso zehatzak ezagutuko ditu, afinitatea bi familia ezberdinen artean aliantza bat osatuz, jabegoa konpartitzen da... eta horrelako harremanak osatzen dira.

Ematen den joera monogamo promiskua da. Hots harreman monogamo jarraituak osatzen ditugu etengabe. Izan ere poligamia onartzen duten gizarteetan ere normalean goiko klaseen kontua izaten da. Ez direnean ingurunearen eraginagatik izaten da, adibidez Himalayako artzainen artean. Horiek poliandria praktikatzan dute natalitatea kontrolatzeko.

Monogamiarako joera azaltzeko azalpen bat nomadismoagatik izan ahal da. Gizaki primitiboentzat ona zen. Emakumeentzat edoskitze epeak mantentzeko eta gizonentzat seme alabak edukitzeko aniztasun genetikoarekin. Baina iraultza neolitikoaren ondoren mundu sinbolikoaren garapenarekin monogamia finkoak ezarri ziren.

Maitasuna gai eztabaidatua izan da antropologiaren baitan. Batzuen ustez maitasuna ez da existitzen, asmakizun kultural bat baino ez da. Izan ere XIX mendean erromantizismoaren mugimendu kulturala ideia hori zabaldu zuten. Beste batzuen ustez erreakzio biologiko bat baino ez da eta ugalketa errazteko metodo naturala.

XIX mendeko Morgan Irokesen ahaide antolakuntza ikertzerakoan konturatu zen bere sofistrazioaz. Gainera ikusi zuen puntu askotan erromatarren familia modeloarekin kointziditzen zuela. Morganen ikerketak eragina izan zuen Engelsengan familiaren ikuspegi marxista lantzeko bere liburu ospetsuan *El origen de la familia, de la propiedad privada y del estado*.

Laburbiltzeko gai honetan batez ere hiru ikuspegi landu ditugu. Lehenengo Radcliffe Brown antropologo britainiarrena, zeinek dio familia dela guztiaren zentroa. Izan ere legeak bai juridikoak bai kulturalak familia modeloen mesedetara egon ohi dira. Gainera dio estruktura bertikal bat dela belaunaldien arteko harremanetaz osatuta.

Bigarrenaz Levi-Straussen ikuspegi estrukturalista, bere ustez familia betebehar bat dauka gizarte estrukturan. Emakume trukaketa aliantzak osatzeko bereziki azpimarratzen du.

Azkenengoz Robin Foxen ikuspegi bio-antropologikoa bere ustez familia eta berarekin loturak dituen oro azalpen biologiko bat dauka. Hots natura berez faktore batzuk jartzen ditu eta gizartea horietara egokitzen da abantailak ekartzen dituelako.

Badaude beste hainbat ikuspegi familiari buruz. Esan bezala gai oso popularra delako antropologian, baina horiek dira garrantzitsuenak.

Antropologia Politikoa

Antropologia politikoa hainbat auzi planteatzen ditu. Baina oinarrian kointziditzen da esaterakoan botere politikoa legitimazio bat behar duela. Legitimatze prozesua azaltzeko era oso ezberdinak daude. Antropologo eta pentsalari askok teoriak garatu dituzte horren inguruan.

Max Weberrek esaten zuen bortxarako monopolioan zegoela legitimazioa. Gobernu batek monopolioa mantentzen duenean gizartea mendea dauka baina galtzen duenean iraultzak egon ahal dira. Obeditzeko arrazoiak hiru izan ohi dira, tradizioa, karisma eta arrazionaltasuna.

Clastres antropologo anarkista bere etnografia gizarte unitarioetan fijasen zuen. Gauza nabarigarriak aurkitu zituen. Adibidez guaraniak beraien jefetxoak egun guztian kritikatzeko zituzten, baina gero beraien ziren poligamiarako eskubidea zeukaten bakarrik. Hots boterea erregulatzeko metodoak ziren. Baina badirudi momentuko argazkiak zirela.

Service nola eta zergatik sortzen diren estatuak topatu nahi zuen. Botere politikorik gabeko gizarteetan Big Man figura dago, hori birbanatzeaz arduratzen da. Ondasun asko biltzen dituen bere tribuko kideen artean banatzen ditu entzutea eta boterea lortzeko. Trantsizio figura bat da, posizio horretatik buruzagitza formalaren figurara pasatzen da.

Gaur egun esaten da estatuak europarren eraginagatik zabaldu direla munduan zehar. Baina Servicen ustez eragin hori ez da hainbesteko. XIX mendean hainbat estatu sortu ziren, Zuluak, Polinesia, Hawaii, mendebaldeko Afrikan hainbat estatu, Txerokiak... eta abar. Horiek ez ziren europarregandik sortu.

Zulu inperioaren kasua berezia da zirkunskripzio fenomenoak agertzen delako. Normalean gerra baten ondorioz galtzaileak lur emankorretatik baztertuak izaten dira. Baina horrexegatik askotan nahiago dute zerga edo tributu batzuk ordaintzea gerran sartu baino, baldintza materialak mantentzeko.

Kasu askotan estatu bat sortzea inguruan beste estatuak eratzea eragiten du. Estatuaren joera naturala zabaltzea izan delako, horri aurre egiteko beste estatu bat behar da. Hots gerra estatuak sortzeko motorra da baina merkataritza baita ere.

Honela esan dezakegu dela bidea estatua sortzeko:

Botere politiko eza -> Big man -> Buruzagitza -> Estatua

Ikerketen arabera lehenengo estatuak Mesopotamian sortu ziren 4000-3000 k.a artean. Lehenengo estatu horiek hiriei lotuak zeuden. Gero 3000 k.a Egipton, 2500 k.a Indian, 2500 k.a Mesoamerikan eta azkenik 1500 k.a Ande inguruan.

Lehenago ikusi bezala toki horietan iraultza neolitikoa lehenago gertatu zen. Izan ere gizarte horietan karismaren edo lan banaketaren eraginagatik estatua sortzeko bidea bizkortzen da. Adibidez Mesopotamian populazio hadien metaketa baliabide hidraulikoen antolaketa eskatzen zuen.

Sinismenak eta erlijio sistemak

Erlijioa sinismenak dira. Sinismen horiek estatuen eta etnien gaineratik egon ohi dira, beste motatako lokarriak dira. Lotze horiek erritualekin ematen dira. oraindik ere ez dakigu oso ondo zergatik hasi ziren erritualak eta erlijioak sortzen.

Tylor izan zen erlijioa antropologian sartu zuen lehena. Animismoaren kontzeptua eratu zuen, bere ustez erlijioak eboluzio bat izan dute. Lehenengo animismoa herri nomada eta primitiboen berezko erlijioa. Bigarrenaz politeismoa egongo zen, gauza bakoitzerako jainko bat dago. Azkenengoz monoteismoa egongo zen jainko bakar eta ahalguztidunarekin. Ikuspegi eboluzionista hori normalean ez egokitzen hartzen da gaur egun.

Erlijio animistetan guztia arima eta berezko natura dauka. Oso lotuak daude Txamanaren figurarekin, horiek arimen munduarekin bitartekaritza lanak egiten dituzte. Taldearen kideak dira baina apur bat banatuta bizi dira. Denetarik egiten dute, erritualak prestatu, tribuko medikuak... figura hain garrantzitsuak izanda askotan boterea metatu ahal du.

Askotan erlijioa gizartea kontrolatzeko tresna bat izan da agintaritza politikoa eta erlijiosoak batzen direnean. Izan ere erlijioak legitimazio iturri garrantzitsuak dira autoritate morala ematen dutelako.

Horregatik erlijio askotan olinpismoaren fenomenoak egon da. Hau da estruktura jerarkiko bat osatzea erlijioaren barruan.

Antropologia sinbolikoa

Sinboloak errealtate materialaren errepresentazioak dira. Debourdek esaten zuen espektakuluaren gizartean bizi garela eta errepresentazioak baino ez ditugula kontsumitzen. Errepresentazio eta errerepresentatuaren artean ez dago lotura fisikorik baietan nolabait kontsentsuz lotzen dira.

Sinboloak jausi kualitatibo bat izan dira. Unibertso fisikotik abstrakzio bat dira, lehen jausia lanabesak izan ziren, gero lengoia eta berarekin margoak, musika tresnak, erlijioa... guztiak abstrakzioa eskatzen dute eta gizakiaren estrukturak garatzen dituzte.

Gure garuna handitzen den heinean protesi kulturalak erabiltzen ditugu. Protesi horiek munduaren ulermena errazteko balio dira, sare sinbolikoak osatuz gure artean ulertzen gara. Ondorioz esan ahal dugu sistema sinbolikoa munduan gure artean mugitzeko muleta bat dela. Baina hein handi batean sinboloak kondizionatuta daude kulturagatik. Lotura oso estua daukatenez kultua ezberdinekoak agian ez dute ulertzen bata bestearen sinboloak.

Harris eta Bartraren arabera sinbolo garrantzitsuena hizkuntza da. Beste guztien gainetik. Transmisioa ahalbidetzen du eta unibertso abstraktu bat eratzeko balio zaigu. Chomskyk esaten zuen denok gure baitan gramatika unibertsal bat daukagula hizkuntza oro ulertzeko.

